

2002-04-17
kioskoa

Iban Arregi

Boroako zentralari buruzko erreferenduma

Boroako zentral termikoari buruzko erreferenduma igandean egin zuten Zornotzan. Euskal Herriko egunkari batzuentzat nahikoa oharkabean pasatu da bozketak, baina badira gaiaren inguruko iritzia eman dutenak ere.

Gara-k, atzoko *ikusmira* sailean, erreferendumaren emaitzari jarri zion arreta (zornotzarren %43k parte hartu zuten, eta horietako %98,2k zentralaren aurka bozkatu): «Denera 5.352 lagunek eman zuten zentralaren kontrako botoa; alegia, hautesle-errolaren %42,8k. Proiektuaren bultzatzaileek —eta hura babesten duten alderdiek eta erakundeek— badakite, portzentai hori kontuan hartuta, erreferendum ofiziala egingo balitz ezezkoak irabaziko lukeela». Baina, ESB enpresa bultzatzaileak eta erakundeak jakinarazi dute emaitzek ez dutela geratuko proiektua. Horren harira, honokoa zioen **Gara**-k: «Zentrala egiten bada, onartu egin beharko da zentralak gehien eragiten dien herritarren borondatearen kontra egingo dela».

El Mundo egunkariak ere heldu zion atzo gai horri, argi eta garbi «EAJren kudeaketa instituzionalari» egurra emateko. Honela zioen: «Jada berandu da gaia birplanteatzeko, ESBk ingurugiro arloko betekizun denak bete dituelako, eta atzera egiteak kalte handiak eragingo litzukeelako». Behin hori esanda, EAJren kontra egin zuen **El Mundo**-k: «EAJk zalantza artean jokatu zuen, koordinaziorik gabe, eta kontraesan bezala. Akats onartezinak egin ditu auzi honetan, hain instalazio inpopularrak hitz egiten ari garelako kontuan hartuta».

Egunkaria 3.527 zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**martintxo****hizpideak****Emakumeen eskubideak bermatu behar ditu Justiziak**

Alicia Aristegiren hilketaren ondoren —20 salaketa jarri zituen senar ohiak labankadaz hil aurretik— nabarmena da Justiziak neurri eraginkorragoak hartu behar dituela genero indarkeria pairatzen duten emakumeen eskubideak, eta bizitza kasu askotan, bermatzeko. Justiziak azkar jokatu behar du eta aurretiazko badaezpadako neurriak (biktimarengana ez gerturatzeko agindua, emakumea babestea...) beteko direla bermatu behar du. Justiziak, gainontzeko sektore guztiek bezala, gehiago egin behar du emakumeen eskubideak bermatzeko.

Srebrenicaren itzalak dimisioa eragin du Hagan

Holandako Gobernuak dimisioa aurkeztu zuen atzo. Erabakia Srebrenican (Bosnia) 1995ean serbiarrek musulmanen kontra eginiko triskantzari buruzko txostenak eragin du. Txostenaren ondorioak joan den astean jakinarazi zituen erakunde batek. Lan horretan, NBE kritikatu zuen, Srebrenica behar bezala ez babesteagatik. Hala ere, Holandaren jarrera gaitzetsi zuen, «arinkeriaz» hartu zuelako Srebrenicara soldaduak bidaltzeko erabakia. Soldadu haiek ez ziren gai izan hango herritarrek babesteko, eta «jakin gabe» garbiketa etnikoan lagundu zuten.



Lehen Mailako Eskuz Banakako Txapelketa Profesionalen parte hartzen ari diren pilotariak, martxoko argazkian.

Holandako lehen ministro Wim Kok, atzo, Gobernuaren dimisioaren berri Beatriz erreginari ematera zihoanean.

**Pilota enpresen 'araudia'**

Finalerdiak arte atzerapenik eskatzerik ez zela egongo esanez aurkeztu zuten Asegarce eta Aspe enpresek martxoan Eskuz Banakako Txapelketa. Igoerak eta jaitzierak zehaztuta, enpresa guztiak ordezkaturak, pilotari guztiak nahastuta, ranking-a... aspaldian ez bezalako Manomani gisa aurkeztu genuen. Pilotari «seriotasuna» eman behar zaiola nabarmenduz gustura ziren enpresa nagusietako buruak ere, baina izan duten lehen aukeran apurtu dute agindutakoa. Asegarce izan zen lehenengoa Asier Olaizolari partida atzeratzea onartu zionean. Ez zitzaion ongi iruditu erabakia Asperi, baina Imanol Agirre baldintza berean zegoela jakinda, atzerapena onartu diote hari ere. Pilotarien eskaria ez du inork zalantzan jartzen, baina bi enpresen jarrera eta, batik bat, argudioak, bai.

Javier Viarrek hartuko du Zugazaren lekukoa

Miguel Zugazak joan zen abenduan Madrilgo El Prado museoa zuzentzeko eskaintza onartu zuenetik lau hilabete igaro eta gero, Bilboko Arte Eder Museoko Fundazioak haren ordezkaria hautatu zuen atzo: Javier Viar, arte aditu eta idazlea. Zugazak utzitako hutsunea beteko duen pertsona egokiaren hautaketak buruhauste handiak ekarri dizkio Patronatuari. Izan ere, Zugazak bere nahierara diseinatu zuen museo ereduarekin bat egin beharko du zuzendari berriak. Mahai gainean zituen zazpi curriculum-en artean Javier Viarrena aukeratu du Fundazioak, arte ederraren alorrean duen esperientzia eta museoaren gaineko ezagutza kontuan hartuta.